

**ERAKUNDE TXOSTENA**

Dokumentua:	IO-2015-026
Izena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Lege- aurreproiektua

Nork egin:

Sin.: J.I. Osaba Urrutia

Proiektu-arduraduna

Eguna: 2015-06-22

Nork onartua:

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Eguna: 2015-06-22

ERAKUNDE TXOSTENA	
Dokumentua: IO-2015-026	Orrialdea: 2/6

Proposamena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Prestakuntza eta Ikaskuntza Zuzendaritzak, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan (aurrerantzean HHABHZ) 2015eko ekainaren 17an sartu zen transmisio telematikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Lege Aurreproiektuaren txostena eskatu du.

Lege-aurreproiektu horren helburua da EAEn lanbide-heziketako (aurrerantzean LH) eredu partekatu berria antolatzea eta arautzea, gizartearen eta euskal ekonomiaren beharrei egokiro erantzuteko, bai eta, hazkuntza adimendunerako, jasangarrirako eta integratzaileerako aukera ematen duen ezagutzan oinarritzen den ekonomiaren garapenean, haren baitan sortzen diren eraldaketen beharrei ere. Lege-aurreproiektu horren bidez, urriaren 10eko Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzari buruzko 1/2013 Legean zehaztutako LHko sistema integratua osatzen da, eta Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legean ezarritako ikaskuntza-jarduerak jasotzen dira. Eta honako atal hauek ditu:

- Aurkibidea.
- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, 10 kapitulutuan egituratuta:
 - Atariko kapitulua – Xedapen orokorrak (1-3. artikulua).
 - Lehenengo kapitulua – LHko eredu konbinatua (4-8. artikulua)
 - Bigarren kapitulua – LHko eredu konbinatuetan espezializatutako zentron euskal sarea (9-12. artikulua).
 - Hirugarren kapitulua – LH duala alternantzia-araubidean (13-14. artikulua).
 - Laugarren kapitulua – LHren koordinazioko, zuzendaritzako, plangintzako, kudeaketako eta aholkularitzako organoak (15-16. artikulua).
 - Bosgarren kapitulua – Lanbideko ezaugarri eta espezializazioen euskal esparrua (17-18. artikulua).
 - Seigarren kapitulua – LHko euskal sistemaren nazioartekotzea (19-21. artikulua).
 - Zazpigarren kapitulua – Hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak LHn (22-23. artikulua).
 - Zortzigarren kapitulua – Ikerketa, berrikuntza eta kalitatearen hobekuntza LHko sisteman (24-27. artikulua).
 - Bederatzigarren kapitulua – LHko euskal sistemaren ebaluazioa (28-30. artikulua).

ERAKUNDE TXOSTENA	
Dokumentua: IO-2015-026	Orrialdea: 3/6

- Azken zatia. Honako atal hauek ditu:
 - 2 xedapen gehigarri: Horren harira, lehenengoak honako hau dio: *"Lege honen 16. artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako LHko organismo teknikoak eta aholkularitzakoak..."* **Hori horrela, adierazi behar da 16. artikulua, txostena egiteko bidalitako zirriborroan, 3 paragrafo edo atal baino ez dituela eta ematen duela ez zaiola egokitzen lehenengo xedapen gehigarriaren idazketa 16. artikulua idazketari (LHko euskal kontseilua), behintzat, bera bakarrik kontuan hartzen badugu, 15. artikulua kontuan hartu gabe (LHko koordinazioko goi-organoa), horrek baditu eta 5 atal.**
 - Xedapen iragankor bakarra. **Kasu honetan, Lanbide aipatzen da, bai eta 16. artikulua ere, eta 15. artikulua aipatu beharko litzatekeela esaten da, LHko koordinazioko goi-organo sortzeari buruzkoa.**
 - 2 xedapen indargabetzaile; horien bidez, Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 23. artikulua indargabetzen da, bai eta maila bereko edo beheragoko eta lege honi aurka egiten dioten gaineko xedapenak ere.
 - 9 azken xedapen:
 - Lehenengo 6ek Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea aldatzen dute, 24.5, 32 (2. eta 3. atalak ezabatzen ditu eta 2 uzten ditu), 40.6, 45.4, 47 (2. eta 3. atalak) eta 6. artikuluetan.
 - Zazpigarrenak aldatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretua.
 - Zortzigarrena, garatzeko eta gauzatzeko gaikuntzari buruzkoa. **Emandako zirriborroan zazpigarrena da, berriro.**
 - Bederatzigarrena, indarraldiaren hasierari buruzkoa. **Goian azaldutakoa dela eta, zortzigarrena da emandako zirriborroan.**

Balorazioa:

Adierazitako lege-aurreproiektua azertu ondoren, honako hau adierazi beharra dago:

- A) Egitura eta antolaketa alderdiak direla eta, honako hauek dira nabarmentzekoak:
 - 9. artikulua, LHko eredu konbinatuan espezializatutako zentroen euskal sareari buruzkoa; eraketa erregelamenduz ezarriko da.

ERAKUNDE TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-026

Orrialdea: 4/6

- 11. artikulua, LHko eredu konbinatuan espezializatutako zentroyen euskal sarean espezializatutako nodoei buruzkoa.
- 15. artikulua, EAEko administrazioaren barruan, LHko koordinazioko goi-organoa, sailen artekoa, sortzeari buruzkoa. Horrek honako hau dakar:
 - 3.a atalean goi-organoaren funtzio gisa sartzen du LHren arloko politika orokorrak ezartzea...
 - 4. atalean dio Lanbidek, Lanbideri buruzko urriaren 13ko 3/2012 Legearen 3. artikulua esleitutako funtzioez gainera, LHren programazioa eta kudeaketa egingo dituela, enplegurako, bere eskumeneko eremuan.
 - 5. atalean dio Lehendakariak, EAEko sailen funtzioak eta arloak zehaztean, eta, hala badagokio, Gobernuak LHko koordinazioko goi-organoaren eraketa zehaztuko duela, bai eta buru izango duen eta funtzioak beteko dituen kide bakarreko organoa ere.
- 16. artikulua, LHko euskal kontseiluari buruzkoa, LHren arloko administrazioen eta eragile sozialen arteko organo parekide gisa; organo horren eraketa EAEko Administrazio Gobernuak zehaztuko du erregelamenduz.

Azaltzea, aurreko artikuluei dagokienez, batez ere 15. artikuluari dagokionez, testuak etorkizuneko araubideetara bidaltzen duela, sarearen, goi-organoaren eta kontseiluaren eraketa eta/edo osaera ezartzeko eta ezagutzeko. Hori dela eta, orain ez da posible egoki balioestea antolaketan duen eragina, eta, hori dela eta, beharrezkotzat hartzen da araudi horiek baldintza hori zehazten dutenean egitea eta txostena eskatzea. Hori guztia kontuan hartuta, bidezkoa da gogoeta bat egitea goi-organoaren sorreraren inguruan. Izan ere, planteatzen den baldintzen arabera, beharbada sailen artekoa barik, sailez gaindikoa den organoaren aurrean egon gaitzke, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien jarduketara funtzio eta -arloen zehaztapenari (azken xedapenetako lehenengoa) buruzko abenduaren 15eko Lehendakariaren 20/2012 Dekretuan adierazitakoarekin bat ez datorrena.

B) Prozedura alderdiak direla eta, honako hau nabarmendu behar da:

- 17. artikulua, lanbideko gaitasun eta espezializazioen euskal esparruari buruzkoa. Honako hau dio:

ERAKUNDE TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-026

Orrialdea: 5/6

- 7. atalean dio prestakuntza orok, LHren eremuan, esparru horretan aurreikusitako lanbide-gaikuntza eskuratzea edo areagotzea badakar, aitortzeko, ziurtatzeko eta egiaztatzeko prozedura izango duela.
- 8. atalean dio zentro pribatuetan esparru horri lotutako prestakuntza emateko aurretik baimena beharko dela. Eta zentro publikoetan programak emateko administrazio eskudunak eman beharko duela baimena.
- 18. artikulua, lanbideko gaitasun eta espezializazioen euskal esparruko prestakuntza-ekintzen onarpenari, aitopenari eta egiaztapenari buruzkoa. Honako hau dio:
 - 2. atalean dio Euskadiko lanbide-espezializazioko programei buruzko prestakuntza administrazio eskudunak egiaztatuko duela, ziurtagiri xehatuaren bidez.
 - 3. atalean dio LHko koordinazioko goi-organoak egiaztapen- eta ziurtapen-sistema sustatuko duela.
 - 4. atalean dio LHko koordinazioko goi-organoak aitorpenerako, ebaluaziorako eta egiaztapenerako behar diren prozedurak proposatuko dituela.
- 20. artikulua, LHko euskal sistemaren prestakuntza-jarduerak beste herrialde batzuetan eskaintzeari buruzkoa; 1. atalean sustapenerako eta laguntzarako ekintza bereziak gauzatzeko aukera aurreikusten du.
- 25. artikulua, LH integratuan berrikuntzaren eta kalitatearen sustapenari eta etengabeko hobekuntzari buruzkoa; 3. atalean dio Eusko Jaurlaritzak LH integratua garatzeko eta hobetzeko arauak eta egiaztapenak ezarriko dituela.
- 27. artikulua, berrikuntzarako eta kalitatearen hobekuntzarako egiturei buruzkoa; 3. atalean dio EAEko hezkuntza-administrazioak LHko zentro publikoetan antolaketa-egitura bereziak baimendu ahalko dituela, aldi baterako, proiektu zehatzetarako, bai eta antolaketa-egitura formalez eta egonkorrez bestelakoak ere.
- Azken xedapenetako zazpigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren aldaketari buruzkoa; IV. tituluko X. kapituluan, salbuespen eta hobariei buruzko 95. quaterdecies artikuluari dagokionez, hnako hau dio:
 - 1.a, 1.b eta 1.c atalei dagokienez, familia ugariko txartelaren, enplegu-eskaeraren eta Lanbideren eskutik DSBEn hartu-agiriaren fotokopia aurkezteko beharra, hala badagokio.
 - 2. atalari dagokionez, familia ugariko txartelaren fotokopia, hala badagokio.

Bidezkoa da gogoraraztea, horren harira, familia ugariaren, enplegu-eskaeraren eta DSBEn dokumentazioa elkarreragingarritasunaren bidez dagoela

ERAKUNDE TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-026

Orrialdea: 6/6

eskuragarri. Hori dela eta, aplikatzeko indarrean dagoen araudiarekin bat eginez, aurretik aipatutako testuan jaso beharko litzateke interesdunak aukera hori duela, alegia, nahi izanez gero, ez duela zertan dokumentazio hori aurkeztu, baldin eta baimentzen badu (berriazko adostasuna) dagokion egiaztapena egitea organo kudeatzaileak administrazio eskudunaren aurrean.

Azkenik, aipatu behar da, esku artean dugun testua berrikusi ondoren eta prozedurei dagokienez, ez zaiola aipamenik egiten horiek elektronikoki izapidetzeko aukerari; hala ere, lege maila kontuan hartuta, ulergarria izan daiteke. Hala ere uste da beharrezkoa dela arau honen ezarpenaren ondorioz eta geroko garapenaren ondorioz sortzen diren administrazio-prozedurak izapidetze elektronikoen bidez egiteko aukera eskaintzea eta, era berean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuen Katalogoan sartzea.

Azkenik, adierazi beharra dago Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aipatutako prozeduren izapidetze elektronikoa arautu, antolatu eta inplementatzeko eta administrazio-kargak murrizteko behar duen aholkularitza eta informazioa emango duela HHABHZ-k.

Ondorioak:

Txosten honen arrazoa den lege-aurreproiektua aztertu ondoren, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18. artikulua bidez esleitutako eginkizunei jarraiki, horiek dira HHABHZ-k antolamendu- eta prozedura-ikuspuntutik Euskadiko Lanbide Heziketari buruzko Lege Aurreproiektuaren inguruan egindako oharrak.